GANBARA
Arteta kalea, 5-7 Behea
tel:943 59 19 71
ANDOAIN
TABERNA
KONTZERTUAK - ERAKUSKETAK - ANTZERKIA

DANENA
TABERNA
Zorionak Egunkaria!
Zumea kalea 26,
ANDOAIN

AKER BELTZ
Taberna
Plaza Nafarroa 1 - Tel: 943 30 08 46
20140 ANDOAIN

ARTETA
TABERNA
ARTETA KALEA, 5 BEHEA - Tel: 59 30 94 - 20140 ANDOAIN

ZURGIN LAN
AROZTEGIA S.L.
OBRETAKO ZURGINTZA LANAK
EREFORMAK
KONPONKETAK
Gudarien etorb., 8 Pol.
20140 ANDOAIN
Tel.: 943 59 36 76
Faxa: 943 30 00 26

JOSE RAMON
TABERNA
EGUNKARIA AURRERA
Kale Nagusia, 16
ANDOAIN

ARANBURU
artekaritza
winterthur
ASEGURU - AHOLKULARITZA
(ETXEBIZITZA - ISTRIPUAK - BIZITZA - KOTXEA,...)
INBERTSIO FONDOAK
MAILEGU PROFESIONAL ETA HIPOTEKARIOAK
Kaleberria, 26 Tel.: 943 59 08 14 / Faxa: 943 59 24 03 ANDOAIN

RENAULT
ERAKUSKETA ETA SALMENTA: 943 59 37 02 tel.
BURUNTZA TAILERRAK
Bazkardo Poligonoa, 8 ANDOAIN
✆ 943 59 23 10

## Astigarraga



EGUNKARIA

■■■ Santa Ana eguna Astigarragan: sagardoa eta herri kirolak protagonista.

# Urtebeteko kronika

## Astigar Elkarteak 25. urteurrena bete du ■ Kultur Taldeen Koordinadora ere lanean ari da etorkizunari begira

ASTIGARRAGAN hainbeste lan egin duen Astigar Elkarteak bere sorreratik 25 urte bete ditu. 1975. urtean Astigarragako hainbat gazte bildu ziren, euskal kultura bultzatuko zuen talde baten beharra ikusten baitzuten. Horrela, euskarazko eskolak, dantza, txistua eta beste hainbat jardueratako ikastaroak ematen hasi ziren. Garai hartan Astigarraga Donostiako auzo bat zen, eta gazte horiek Astigarragaren herri izaera aldarrikatu zuten. Astigar Elkarteko Antton Arkaren esanetan, «gu ginen nolabaiteko ordezkari sozialak, ez zegoelako beste elementurik horretan».

Astigar Elkartetik sortu dira egun lanean ari diren Astigarragako talde ugari. Talde horien artean dauzkagu Xagu-Xar, Astigar dantza taldea, AEK, *Astigarra* aldizkaria... Urtemuga ospatzeko hainbat ekintza antolatu zituzten aurtengo ekainaren 25a eta 30a bitartean.

### Etxebizitzak eraikitzen

Astigar Elkartearen hasiera hartatik gauza asko aldatu dira Astigarraga aldean, eta herria bera ere asko aldatzen ari da. Etxe eta eraikin ugari egin dituzte azken urteotan, eta horrek zein eragin ekarriko ote duen da herritar asko-

### Ramon Goikoetxea, txalapartari estimatua

Aurtengo apirilean zendu zen Ramon Goikoetxea Astigarragako txalapartari maitea. Txalapartari umila eta emankorra izan zen, bere anaia Asentxiorekin batera txalaparta ikastaroak ematen zituen. Esan daiteke bi txalapartari hauek egindako lanari esker dauka txalapartak egun duen harrakasta.

Ramon Goikoetxeak egindako lan oparoa dela-eta herrian omenaldi xumea egitea erabaki zuten, alde batetik aurtengo herriko aldizkariko (*Astigarraga 2000*ren 19 alea) kontrazalean bere irudia agertaraziz eta, bestetik, herriko jaietan (Santiotan) aipamen berezia egin zitzaion.